

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juana Erauntzetamurgil Zinkunegi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Iturrieta Zahar baserrian jaioa. Bai ama eta bai aita Igeldokoak zituen. Aitak Antiguako Lizarriturri xaboi fabrika egiten zuen lan. Hamahiru senidetan zaharrena zen Juana, bere atzetik hamaika mutil eta neska bat etorri baitziren. Etxea lau bizitzakoa zen, eta beraiek lau haietatik bi erabiltzen zituzten. Maizterrak ziren, ordea, eta nagusiak etxetik bota zituen, alaba ezkontzen zitzaiola eta. Itsasondora joan zen, orduan, Juanaren familia, eta handik Lasarteko Zabaleta auzora, berak hogeita bi urte zituela. Han bizi zela, Orian egin zuen lan, Brunet ehun lantegian. Handik Astigarragara ezkondu zen. Gazterik alargundu zen, ordea, eta Zabaletara itzuli zen.

Zintak

DON-120

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-05-07
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

DON-121

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-05-07
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Sagarrak eskuz jotzen

- **Erref:** DON-120/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

Sagarrak eskuz jotzen zituzten lehen. Gero eskuz eragiten zitzaion makinarekin hasi ziren. Dena bizkarka altxatu behar izaten zuten, patata eta bestelakoak.

2. Aita Lizarriturri xaboi fabrikan lanean

- **Erref:** DON-120/007
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Aitak Lizarriturri xaboi fabrikan egiten zuen lan Antiguan. Lantegi asko ziren lehen han.

3. Igeldotik Itsasondora eta handik Lasartera

- **Erref:** DON-120/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Itsasondoko baserri batera bidali zituen etxeko jabeak, alaba ezkontzen zitzaiola eta. Han bi urte pasa eta Lasarteko Zabaleta auzora joan ziren. Oriara joaten zen lanera oinez, hankautsik, abarketak besapean hartu.

4. San Pedrotan erroskilak

- **Erref:** DON-120/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Lasarteko festetan, San Pedrotan, erroskilak ekartzen zituen anai-arrebentzat. Behiak jezten aritzen zen zortzi urte zituenetik.

5. Ume txikien pixoihal eta jantziak

- **Erref:** DON-120/012
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:16:38. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Umeei pixoihal modura zapiak lotzen zitzaizkien. Seme-alabentzat bi jertse egin zituen eta haiekin ibiltzen ziren txiki-txikitan. Gaietik mantoia janzten zitzaien.

6. Egurrezko sehaska

- **Erref:** DON-120/013
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Egurrezko sehaska batean hazi ziren senide guztiak. Umeak negar egindakoan, sehaskari hankarekin eragiten zitzaion.

7. Artilezko koltxoia pixagatik ustelduta

- **Erref:** DON-120/014
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:23:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Senide asko zirenez, 3-4 anai-arrebak ohe bakarrean lo egiten zuten. Bi logelatan sartzen ziren denak. Artilezko koltxoia usteldu egiten ziren, umeen pixa zela eta.

8. Erregetako oparia, mandarina eta azukrea

- **Erref:** DON-120/015
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:24:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Erregetan festa izaten zuten etxean. Oparitzat mandarina bat edo azukrea izaten zuten.

9. Masustak batzen

- **Erref:** DON-120/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:24:37. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Ama siestara joaten zenean, masustak batzera joaten ziren. Auzoko batek zigarroa erretzen zebilela belar meta erre zuen. Egunkari orriekin eta arto-bizarrekin egiten zuten zigarroa. Fruta arbola asko izaten ziren lehen eta halaxe betetzen zuten sabela.

10. Ama esnea banatzen

- **Erref:** DON-120/018
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Ama esnea banatzera joaten zen Antiguara. Arrautzak ere eramaten zituen eta sardin-zaharrak ekarri. Oinez ibiltzen zen bere ama, astoa hartuta.

11. Donostiar dirudunen arropak garbitzen

- **Erref:** DON-120/019
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Donostiarren arropak garbitzen zituen bere amak. Lixiba nola egiten zuten kontatzen du.

12. Ekaitzaren aurkako sinesmenak

- **Erref:** DON-120/020
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ekaitzaren aurka, erramu bedeinkatua eta sutako hautsa atarian erretzen ziren.

13. Lixiba nola egiten zen

- **Erref:** DON-120/021
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:32:53. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Lixiba nola egiten zuten kontatzen du. Barrikan garbitu eta errekan astintzen zuten arropa. Kaletarren arropa izaten zen.

14. Ikuiluan gorputza garbitzen

- **Erref:** DON-120/022
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:34:19. **Bukatu:** 00:35:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Ikuiluan zinka izaten zen urez beteta eta han garbitzen zuten gorputza. Ume txikiak zapi bustiarekin igurtzi eta horrelaxe garbitzen zituzten. Lurreko sua zuten etxean umetan eta gero ekonomika jarri zuten.

15. Kafea txingar eta guzti

- **Erref:** DON-120/023
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:37:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Kafea nola egiten zuten kontatzen du. Sutako txingarra sartzen zuten lapiko barruan.

16. Egur hezearekin komeriak

- **Erref:** DON-120/024
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:40:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Egurrarekin pizten zuten beti sua. Ikatza ere bazen baina dirurik ez zuten. Egurra hezea egoten zenez, ikuilutik zakarra hartu eta harekin pizten zuen ekonomika. Biberoia berotzeko komeriak izaten zituen.

17. Biberoian esnea eta azukrea

- **Erref:** DON-120/026
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:45:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Biberoia emateko, lehenengo behi-esnea urarekin nahasten zen eta umea hazi ahala, ur gutxiago nahasten zitzaion. Azukrearekin gozatzen zuten esnea. Kristalezkoak izaten ziren biberoiak.

18. Jaioberrien etorrera

- **Erref:** DON-120/027
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Aitaren amak laguntzen zion amari erditzerakoan. Umeak bidali egiten zituzten etxetik. Jaioberria amonak mantalean hartzen zuen. Umeak nondik zetozen galdetzen zuten.

19. Giltzapeko armairutik ogia lapurtzen

- **Erref:** DON-120/032
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:54:33. **Bukatu:** 00:58:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Erregeetako oparia azukrea edo mandarina izaten zen. Gau guztia lorik egin gabe pasatzen zuten. Errazionamenduko ogia nolakoa izaten zen kontatzen du. Amak armairua giltzez itxita izaten zuen ogia gordetzeko.

20. Lapiko bakarretik jaten

- **Erref:** DON-120/033
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:58:07. **Bukatu:** 01:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lapiko bakarretik jaten zuten anai-arreba denek. Txikiak amaren altzoan jaten zuen. Artoa etxean xehetuta morokila jaten zuten. Arroz-esnea urtean behin jaten zuten.

21. Brunet ehun-lantegian

- **Erref:** DON-120/034
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:01:06. **Bukatu:** 01:02:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

<p>Brunet ehun-lantegian lan egin zuen lan bost urtez. Soldata amari ematen zion.</p>

22. Sukaldari lanetan hogeita bost urtez

- **Erref:** DON-120/036
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:04:23. **Bukatu:** 01:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Gazterik alargundu zen, seme-alaba txikiak zituela. 25 urtez Tiburtzio tabernako sukaldean aritu zen lanean. Michellineko langileak joaten ziren bazkaltzera. Denetariko lanak egin behar izan ditu.

23. Ehun-lantegiko lana

- **Erref:** DON-120/037
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:06:09. **Bukatu:** 01:06:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Ehun-lantegian nola lan egiten zuten kontatzen du.</p>

24. Ehun lantegiko uniformeak

- **Erref:** DON-120/038
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:06:55. **Bukatu:** 01:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Laneko uniforme bat marroi bat izaten zen. Eguraldi txarrarekin arropak su gainean zintzilik jarrita lehortzen zituzten.

25. Bruneten kanpotar asko

- **Erref:** DON-120/040
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:09:50. **Bukatu:** 01:11:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Erdaldun askorekin batera egin zuen lan Bruneten. Erdaraz ulertu egiten zuen baina hitz egin ez. Elebitan izaten zituzten elkarrizketak. Taloa eta morokila jaten zituzten baserritar langileek eta kaletarrek botila kafesnea hartzen zuten.

26. Lapak batzen

- **Erref:** DON-120/042
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:12:47. **Bukatu:** 01:14:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

Arroketan lapak batzen aritzen ziren. Lapa zopak eta lapak tortillan jaten zituzten. Igerian ez du inoiz egin.

27. Atso-lorra

- **Erref:** DON-120/043
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:14:57. **Bukatu:** 01:16:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

Atso-lorrera esku hutsik joaten ziren. Denak emakumeak izaten ziren. Sukaldean egiten zen.

28. Elizara sartzea nola izaten zen

- **Erref:** DON-120/044
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:16:56. **Bukatu:** 01:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Elizara sartzea nola izaten zen kontatzen du. Ordura arte amak ezin izaten zuen etxetik irten.

29. Limosna jasotzeko bandeja

- **Erref:** DON-120/045
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:19:20. **Bukatu:** 01:20:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Umea bataiatzerakoan borondatea ematen zitzaion apaizari. Limosna jasotzerakoan lehen bandeja erabiltzen zen poltsaren lekuan. Zenbat botatzen zen ikusi egiten zen.

30. Dolua eta ofrendak

- **Erref:** DON-120/046
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:20:53. **Bukatu:** 01:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hildakoan dolua adierazteko brazaletea edo zinta beltza jartzen zuten gizonezkoek. Emakumeek ofrenda egiten zuten igandetan elizan, ogia eta kandela eramanez. Lehenago aulki bakoitzak etxeko izena eramaten zuen, bakoitzak bere lekua baitzuen.

31. Emakumeen dolu jantzia

- **Erref:** DON-120/047
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:24:41. **Bukatu:** 01:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Sei hilabetez beltzez jantzita eta beste sei hilabetez zuri-beltzez ibili behar izaten zen doluagatik.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com